

# Argitalpenak

## Diskoteka

IKER BARANDIARAN

### Hitz kritiko eta zuzenak melodiaren estalpean

Trintxerpeko laukoteak gaztetasuna, sasoi eta gauzak egiteko gogo dauzka. Are gehiago, oso argi du taldea, ondo pasatzeaz gain, bidegabekeriak salatzen sortu zutela. Estreina-lan luze hau grabatzeko Garate estudioetara jo zuten Haritz Harreguyrengana, eta hori emaitzan nabaritzen da. Horrez gain, diskoaren diseinu txukuna egin dute. Kanpokoaren parera, barruan aurki ditza-

kegun kritika zuzenak eta pentsarazteko abestiak ere melodia itsaskorrez busti dituzte. Hala, oinarrian melodia handiko punk-rocka edota punk-popa egiten dute, nolabait Piperrak eta La Pollaren eta Kaliforniako taldeen erdibidean. Horrez gain, baina, tarteka ukitu metaleroak sartzen dituzte edota dultzaina bat: azken hori, katalanez eta euskaraz abestutako *Dos fronts oberts* ederrean.



Itzaletan  
Harrika

AUTOEKOIZPENA

Iraupena: 30'55"  
11,50 euro

#### HARRIKA

### «Etxean Internet edukitzea eta Eroskin nahi duguna erosi ahal izatea ez da demokrazian bizitzea»

“Ez daukagu ezer demostratzeko... hemen gaude gure ostia txarra soinuarekin uztartzeko”. Taldeak kutsu terapeutikoa dauka zuentzat?

Ez genuen horrela planteatu hitz hori idazterakoan, baina seguruenik izango du, bai. Guk abestiak egiten, entseatzeko eta batez ere zuzenean jotzen izugarri gozatzeko eta eguneroko ohikeriatik irteten laguntzen digu. Dena dela, musika bidegabekeriak salatzen erabiliko dugun, batzuei gustatu ala ez.

“Eguzkia nazkatu da mundu putxa hau argitzeaz”. *Itzaletan* hobeto biziko ginateke?

Batzuetan harritu egiten gara nola oraindik eguzkiak indarra duen mundu hau argitzeko. Izan ere, batzuetan argituko ez balu hobe litzateke. Eta okerre-na, askotan denbora beste alde batera begira pasatzen dugula, errealitatea muturren aurrean dugunean.

“Demokrazia omen da... ba gu oraindik ez gara konturatu”. Zuen helburuetako bat da jendeari gauzak ikustaraztea, ezta?

Zer da jendeak ikusi nahi ez duena?

Herriari erabakiak hartzen uzten ez dionak ez du demokrazia izena merezi. Hori da jendea ikusarazi nahi dioguna, ez dela demokrazian bizi. Etxean Internet edukitzea eta Eroskin nahi duguna erosi ahal izatea ez da demokrazian bizitzea. Demokrazia askoz gehiago da, eta guk ez dugu hori ikusten.

“Hamaika urteko gizon bat nauzu”. Askoren egoerak jolasteko beta gutxi ematen du, ezta?

Bai, kezkarria da herrialde askotan zenbat ume dagoen txikitatik arma bat beso artean duena. Gu, zorionez, ume asko ez bezala, txiki-txikitatik laguntzeko jolasean aritu gara, XXI. mendean ume askok jolasean aritzea zer den ez dakitenean. Noiztik zaudete anaituta Obrint Pas taldekoekin?

Beraien musika oso atsegin dugu eta abesti katalan bat izan nahi genuen diskoan. Gainera, dultzainen presentziak beste itxura bat eman dio abestiari, alaitu egiten du.

